



56. EUSKAL SOZIOMETROA: ESTATUS POLITIKO BERRIA (2014ko abendua) Prensa oharra

SARRERA

56. Euskal Soziometro honen gai nagusia Estatus Politiko Berria izan da. Landa-lana 2014ko urriaren 6tik 13ra bitartean egin zen. Garrantzitsua da kontuan izatea landa-lana egin zela Eskoziako independentziari buruzko erreferenduma egin eta aste batzuetara eta Kataluniako kontsultaren aurreko asteetan, gaiak gaurkotasan handia izan zuen egunetan.

ESTATUS POLITIKO BERRIA

Autogobernu gehiagoren eta erabakitzeko eskubidearen nahia

Estatuaren lurralde-antolaketari buruzko aukera desberdinak emanda, herritarren %34k gaur egungoa bezalako Autonomia Erkidegoek osatutako Estatu aukeratuko lukete, %26k Estatu federala, non Autonomia Erkidegoek orain baino autonomia handiagoa izango luketen, eta %25ek nahiago lukete nazionalitateei Estatu independente bilakatzeko aukera onartuko liekeen Estatu.

2013ko datuekin alderatuta, apur bat gutxitu dira gaur egungo antolaketaren aldekoak eta pixka bat gehitu dira bai Estatu Federalaren aldekoak baita independente bilakatzeko aukera onartuko lukeen Estatuaren aldekoak ere.

Herritarren %31 pozik daude **Autonomia Estatutuarekin**, %28 neurri batean eta %27k diote ez daudela pozik. %14k ez dute erantzun.

2012an jasotako datuekin alderatuta, handitu egin dira bai pozik daudenen ehunekoa (%25etik %31ra) baita pozik ez daudenen ere (%17tik %27ra), eta txikitu egin dira neurri batean pozik daudenen (%38tik %28ra) eta iritzirik eman ez dutenena (%19tik %14ra).

Herritar gehienek uste dute **Autogobernu** maila handiagoa ona litzatekeela Euskadirentzat: %55en ustez ona litzateke euskal ekonomiarentzat, %60ren ustez zerbitzu publikoen funtzionamenduarentzat, %52ren iritziz euskal gizartearen bizikidetzarentzat eta %58ren ustez euskal identitatearentzat. Gai horietako bakoitzarentzat txarra litzatekeela uste dutenak %15-%20 inguruan dabilta eta iritzirik eman ez dutenak %12-%15 inguruan.

Autogobernu maila handiagoa Euskadirentzat ona litzatekeela uste dutenak 2005ean baino gehiago dira orain.

Herritarren %50en ustez Eusko Jaurlaritza ondo edo oso ondo ari da autogobernuaren gaian eta %30en ustez gaizki edo oso gaizki; %20k ez dute erantzun.

Autonomia Erkidego jakin baten **etorkizun politikoa** nork erabaki behar duten galdetuta, %69k diote Autonomia Erkidego horretako herritarrek erabaki behar dutela, eta %24k Espainiako herritar guztiek. %7k ez dute erantzun.

EAEko herritarren %72ren ustez Konstituzioa erreformatu beharko litzateke, Autonomia Erkidegoek erabaki ahal izan dezaten Estatuarekin izango dituzten harremanak nolakoak izango diren. Zehatzago, Euskadi eta Espainiaren arteko harremanari buruzko euskal herritarren kontsulta posible bati buruz, %23k nahiko lukete kontsulta hori egitea, baina bakarrik Espainiako Gobernuak onartuko balu, %51k kontsulta egitea nahiko lukete edozein kasutan, eta %16k ez lukete nahi. %10ek ez dute erantzun.

EAEko herritarren %71k nahiko lukete Espainiako herritarrei kontsulta egitea, Estatu ereduari buruz eta %20k ez.

Independentziaren aldeko jarreraren igoera nabarmena

Euskal Herriaren independentziarekiko adostasun maila ez da inoiz gaur egun bezain altua izan, 1998an hasitako bilduma osoan; lehenengo aldiz izan da jarrera jendetsuena.

Herritarren %35 **independentziarekin ados** daude, %33 kontra daude eta %20k diote egoeraren arabera ados ala kontra egongo litzatekeela. Azken erantzun hau nabarmen jaitsi da, aurtengo maiatzetik hona %32tik %20ra pasa baita, bildumako punturik baxuenean geldituz. Independentziaren kontrako jarrera ez da neurri adierazgarrian aldatu.



Aldaketa hau ikerketa egin den testuinguruak azal dezake, Estatuaren lurralde antolakuntzari buruzko gaien presentzia sozial eta mediatiko handiaren eraginez. Kontutan izan behar da baita ere, ikerketa Eskoziako erreferenduma egin eta aste batzuetara egin zela eta Kataluniako kontsultaren aurreko asteetan.

Espainiak onartuko lukeen independentziari buruzko balizko erreferendum baten aurrean, herritarren %39k diote independentziaren alde bozkatuko luketela, %29k kontra eta %12k ez lukete botorik emango; %20k ez dute erantzun. Datuak ez dira ia aldatu 2007tik.

EAEko herritarren %73ri ondo edo oso ondo iruditu zaie Britainia Handiko eta Eskoziako Gobernuen artean irailaren 18ko erreferenduma egiteko akordioa egin izana. %80k uste dute aukera gutxi daudela edo ez dagoela batera aukerarik etorkizunean antzeko akordio bat egiteko Espainiako Gobernuaren eta Gobernu Autonomiko baten artean.

EGOERAREN BALORAZIOA

Egoera ekonomikoaren pertzepzioa apur bat hobetu da, baina txarra izaten jarraitzen du

Euskadiko **egoera ekonomikoaren pertzepzioa hobetu egin da** azken neurketekiko, baina oraindik ere egoera txarra edo oso txarra dela uste dutenak (%68) gehiago dira ona edo oso ona dela uste dutenak (%30) baino.

Euskal egoera ekonomikoaren pertzepzioa Espainiakoarena baino askoz hobea da.

Herritarrek ez dute aldaketa handirik espero euskal egoera ekonomikoan datozen hilabeteotan: %30ek hobea izango dela uste dute, %17k okerragoa izango dela eta %49k uste dute urtebete barru berdina izango dela.

Egoera politikoari dagokionez, herritarren iritzia nahikoa zatitua dago: %51ren iritziz txarra edo oso txarra da eta %40ren ustez ona edo oso ona.

Lan-merkatuarekin lotutako arazoak (%83k aipatu ditu hiru arazo nagusien artean) eta arazo ekonomikoak (%26k) dira EAEko arazo nagusiak herritarren ustez berriz ere. Hirugarren lekuan, distantzi nabarmenera, egoera politikoa eta gatazka politikoa aipatzen dira (%19k).

EAE eta Estatuaren artean desberdintasun nabaria agertzen da ustelkeria eta iruzurraren aurrean. EAEn herritarren %8rentzako da arazo garrantzitsua, aldiz Estatutan %64ra iristen da, CIsen ikerketaren arabera.

JARRERA ETA BALIO POLITIKOAK

Euskal alderdi eta buruzagi politikoaren balorazioa behera

Alderdi politiko guztien balorazioa apur bat jaitsi da maiatzeko neurketarekiko eta batek ere ez du 10en gainean 5 puntu lortu. Lehenengo aldiz galdetu da Podemos-Ahal Dugu-ri buruz, eta 3,8 puntu lortu ditu, bigarren lekuan kokatuz, EAJren atzetik (4,2).

Buruzagi politikoaren balorazioa ere jaitsi egin da, eta batek ere ez ditu lortu 5 puntu. Baloraziorik onena Urkullu Lehendakariak jaso du (4,9 10 punturen gainean). Atzetik datoz Andoni Ortuzar eta Hasier Arraiz (biek 4,3), Idoia Mendia (3,6), Arantza Quiroga (2,5) eta Gorka Maneiro (2,0).

Ikerketa honen **fitxa tekniko**a zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 2.198 lagunek osatua da. Elkarriketak aurrez-aurre egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 2,1$ ekoa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2014ko urriaren 6a eta 13a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.net/ikerketa_soziologikoak